



Sukarrieta

**Sukarrietako Udala**  
**Ayuntamiento de Sukarrieta**

**HIRIA ANTOLATZEKO PLAN OROKORRA**

---

**HERRITARREN PARTE-HARTZE PROGRAMA**

**Abendua 2016**

---

---

# HERRITARREN PARTE-HARTZE PROGRAMA

SUKARRIETAKO HIRIA ANTOLATZEKO PLAN OROKORRA

## AURKIBIDEA

<b>PARTE HARTZEA PLAN OROKORRA IDAZTEN DEN ZEHAR.....</b>	<b>1</b>
Kontzeptualizazioa.....	1
Lege esparrua .....	1
Mugaketa.....	1
<b>parte hartzearen helburu eta estrategiak .....</b>	<b>3</b>
Irizpide orokorrak.....	3
Helburuak .....	3
<b>Inplikaturako eragileak – udalerriko eragileen mapa .....</b>	<b>5</b>
Udalbatza .....	5
Herritarren parte-hartze foroa (HPF).....	5
Kolektiboak eta taldeak.....	5
Emakumeak eta emakumeen elkarteak.....	5
Busturialdeko zerbitzuen mankomunazgoa .....	5
Erredaktore taldea .....	5
<b>ERABILITAKO METODOLOGIA .....</b>	<b>7</b>
Prozedura “irekiak” eta prozedura “itxiak” .....	7
Prestakuntza eta enpoderatzearen arteko harremana.....	7
Informazioa transmititzea.....	7
Lan-tailerrak.....	7
Komunikazio eta diseinu grafikorako estrategia .....	7
<b>aurreikusitako ekintzen planifikazioa.....</b>	<b>8</b>
<b>aurreikusitako ekintzen deskribapena .....</b>	<b>11</b>
Plan Orokorraren informaziorako ekintzak.....	11
Herritarren parte hartzea sustatzeko ekintzak .....	14
Planaren berrikuspen kritikoa ahalbideratzen duten ekintzak .....	18

### PARTE HARTZEA PLAN OROKORRA IDAZTEN DEN ZEHAR

#### **Kontzeptualizazioa**

Hirigintza arloko legezko egitura eta araudia hiritarren parte-hartzera orientatuta dago, bai bera egiterakoan, bai bera aldatzerakoan. Parte-hartzea arlo beraren izaeraren funtsezko osagarritzat har daiteke: hirigintza-antolaketari hiritarren parte-hartzea kentzen bazaio, legitimazio gabe geratzen dela.

#### **Lege esparrua**

Hiritarren parte-hartzea hirigintza-plangintza egiterakoan lehenik eta behin eskubide bat da, konstituzio aurretik nolabait onartzen zena jada eta erkidegoetako legedi guztiek sistematikoki mantendu izan dutena. Guztietan asmatzen da hiritarren eskubide bezala, Administrazioak bermatu eta era berean bultzatu egin behar duena.

Euskadiren kasuan, Lurzoru eta Hirigintzari buruzko ekainaren 30eko 2/2006 Legeak hirigintza antolaketaren oinarriko printzipio bezala tratatzen du (8. artikulua, *Hiritarren parte-hartzearen printzipioa*), eta egiturazko antolaketa ukitzen duen hirigintza plan bat idazteko orduan ezinbesteko tresna bezala hartzen du (108. Artikulua, *Plan orokorrean herritarrek parte hartzeko programa*). Dokumentu honetan izapide honi ekiten diogu, aipatutako araua betez:

*“Egiturazko antolamenduaren plangintzako figura oro egiten, aldatzen edo berrikusten hasteko udal-erabakiarekin batera, herritarrek parte hartzeko programa finkatu beharko da. Programa hori udalerriaren ezaugarrietan oinarrituko da, eta herritarrek eta elkarteek planaren taxuketan behar bezala parte har dezaten bermatzeko beharrezkoak diren helburuak, estrategiak eta mekanismoak jasoko ditu.”*

#### **Mugaketa**

Hirigintza plangintzak, kolektibitatearen interesen antolaketan eragina izan dezakeen edozein plan edo arau bezala, erabaki politiko bat suposatzen du, eta erabaki honek, arrazoiz, ahal den adostasun handienarekin onartua izatea behar du. Horregatik, legediak hiri-plangintzaren demokratizazioa aipatzen du, bera gauzatzeko bide aproposena bezala, bera egitea bere onarpenerako eskumena duen agintean soilik utzi gabe.

Hiritarren parte-hartzea hirigintza aktibitate beraren printzipio bezala egituratzen da hirigintza zuzenbidearen barruan. Administrazioak du bere gain bera gauzatzeko betebeharra, bera gauzatu ahal izateko beharrezkoak diren bideak antolatuz. Zentzu honetan, ordezkartzako demokraziaren osagarri bezala eratzten da, eta ez honen alternatiba gisa. Horrela izanda, ordezkatuak euren ordezkatzailleak kontrolatzeko sistema hobetzea ahalbideratzen du.

Edonola ere, hirigintzaren demokratizazioak bere mugak ditu. Alde batetik, hiritarren esparruan, lurraldearen antolaketa eta erabilerari buruzko erabakiak hartzerakoan nagusitu behar diren irizpide eta estrategiak ulertzerako orduan bereganatu behar duen ardura. Beste alde batetik, Udalaren ahalmena hiritarrekin partekatzeke hirigintza arloak daukan erabakitzeko eskumena.

Zentzu honetan, jurisprudentziak, zenbait epaitan, mugatu izan du parte-hartze eskubidea eta bere norainokoa. Izan ere, oso arrunta da hirigintza plangintza egiterakoan hiritarrek duten parte-hartze eskubidea Konstituzioaren (EK) 23.1 artikuluan hartutako oinarriko eskubide bezala hartzea. Horri buruz, merezi du uztailaren 17ko 119/1995 epaiaren paragrafo batzuk jasotzea. Ondorengoa dio:

*“Egia da jendaurreko erakustaldi izapidearen bitartez nolabaiteko legitimitate bat ematen zaiola hirigintza Planari (nahiz eta ezin ahaztu ere, kasu honetan, legitimitate demokratikoa demokratikoki hautatutako Udal batek onartua izanagatik datorkiola), baina bere azken helburua ez da hautesleriari azken dei bat egitea aurretiaz hartutako erabaki bat berronesteko, ezta erabaki horren azken zentzua zehaztea, baizik eta, hobeto esanda, interesa izan dezaketen edo hala nahi dutenen pertsonak bultzatzea beraien iritsiak adieraztera Administrazioarentzat baliogarri den informazio iturri gisa, era horretan, hartu beharreko*

---

## HERRITARREN PARTE-HARTZE PROGRAMA

SUKARRIETAKO HIRIA ANTOLATZEKO PLAN OROKORRA

*neurriaren egokitasun edo aproposasuna ahalbideratzeko; baita ere ukituta suertatu daitezkeen banakako edo taldeko interesak defenditu ahal izateko bide bat ezarri. Interesdun pertsona edo taldeek akordioak hartzeko prozeduran parte hartu ahal izateko dei bat da.”*

Beraz, hirigintza legedian aurreikusitako hiritarren parte-hartzea, eman daitekeen era guztietan, boterearen jarduketa publikoa kontrolatzeko tresna bat da eta ez kontrabotere bat. Parte-hartzearen helburua administrazioari erabaki ahal izateko elementuak ematea da, baina erabakia halabeharrez eskumena duten organoei dagokie, nahiz eta hauek beti izan beharko dituzten kontutan alegazioak eta iradokizunak aztertu beharreko aukera bat gehiago bezala.

### PARTE HARTZEAREN HELBURU ETA ESTRATEGIAK

#### **Irizpide orokorrak**

Herritarren parte-hartze programa honek baldintza teknikoetan eta Eusko Legebiltzarraren hirigintza arloko legedian, hau da, Lurzoru eta Hirigintzari buruzko 2/2006 Legean, aurreikusitako herritarren parte-hartze bidea zabaltzea nahi du. Aldez aurreko parte-hartze maila bat eratu eta antolatu nahi da, hirigintzako dokumentuen elaborazioaren aurreko faseetan jarduteko, era horretan plan orokorraren idazketaren prozedura gidatzeko. Hala ere, informazio eta azaltze lanari dagokionez, arreta berezia jarriko zaie Aurrerakinaren eta Plan Orokorra beraren dokumentuaren jendaurreko erakustaldi une zehatzei.

Uste da programa honek oreka onargarri bat bilatu behar duela bi mutur hauen artean: hiritarrei ahal den gehien ireki eta erraztu parte-hartzea, eta egituratze operatibo eta praktikoa, erabat argia, parte-hartze hori erredaktore taldeak eta udalbatzaren hirigintza arloko organoek ezagutu, sintetizatu eta kontutan izan dezaten.

Herritarren parte-hartzea informazio eta prestakuntza, analisi eta parte-hartzeko etengabeko prozedura bezala ulertzen da, lanaren elaborazio fase ezberdinetan irekitako kontsulta eta eztabaidatze bitartez, azkenik eduki ireki horietatik ondorio eta iritsi sintetiko batzuk ateratzeko.

Guzti hori dela eta, herritarren parte-hartze programaren fase ezberdinen denboran zeharko antolaketa Plan Orokorra egiteko faseekin lotuta eta koordinatuta antolatzen da.

#### **Helburuak**

Proposatzen den parte-hartze prozeduraren antolaketaren bitartez, helburu batzuk lortu nahi dira, hauen artean:

- Hirigintzako dokumentuaren berri ematea bere fase ezberdinetan, parte-hartzea erabat lotuta baitago Planaren egikaritzaren ezagupen publikoari.
- Plana ezagutu eta berari buruzko informazioa jasotzeko hiritarren eskubidea erraztu.
- Plan Orokorra egiterakoan eta tramitaterakoan hiritarrek duten parte-hartze eskubidea sustatu, horretarako beharrezkoak diren partikularren, Udalaren eta Plan Orokorreko erredaktore-taldearen arteko informazio fluxuak ahalbideratzeko erak ezarriz.
- Neurri handi batean tekniko den dokumentua hiritarrentzat eskuragarri eta ulertzeko erraz egitea.
- Hiritarrek hirigintza arloak izan ditzaketan asmoak, kezak eta ardurak bideratzea.
- Aukera ematea hiritarrei plangintzaren prozeduran parte hartzeko, beraien iritsia emanaz bai Plan Orokorrak proposatutako lurraldearen okupazioari buruz, eta baita ere antolaketa eremu ezberdinei ukitzen dien proposamen eta neurri zehatzei buruz.
- Era xehatuan, parte-hartze prozedurak sustatzeko beharri buruzko lege-agindua bete.
- Era berean, Herritarren parte-hartze Programak helburu bezala dauka indarreko legedian dokumentuaren publizitateari buruz aurreikusitako tresna eta neurri zehatzei buruzko tresna eta neurriak betetzea (jendaurreko erakustaldi, iradokizun eta alegazio izapideak).
- Indarreko legediaren agindu zehatzak bete, esateko, hirigintza plana baliabide telematikoen bitartez argitaratzeko (estatuko LLTB/08ko 9.2 xedapen gehigarria).

Aipatutako helburuak estrategia orokor bati lotuta daude, hau da, hiritar, eragile eta erakunde gehien inplikatzeko Plan Orokorraren erredakzioan. Horren ondorioz, helburu zehatz hauek lortu nahi dira:

- Dokumentuaren idazketa eta asmaketa lehen faseetatik eskumena duten Lurralde-administrazioak tartean sartu. Era berean, ukituta suertatu daitezkeen eskumendun beste herri-administrazioei entzunaldia eman. Honek eragina izaten du beti tramitazio arinago batean bere behin betiko onarpen ordurako.

---

## HERRITARREN PARTE-HARTZE PROGRAMA

SUKARRIETAKO HIRIA ANTOLATZEKO PLAN OROKORRA

- Hirigintza-kultura sustatu udalerriko auzokideen artean, era horretan lege-hauste eta hirigintza diziplina-urraketa egoerak saihestu eta zuzentzeko. Zabaldu nahi da hiritarren artean lurraldearen erabilera eta eraikuntza eskubideari buruzko arauak ezarri eta errespetatzeko beharra, gizarte-bizikidetzeta eta bere inguru naturalarekiko hiritarren harremana hobetzeko tresna bezala.
- Adostasun maila handia lortu, ez bakarrik hiritarren artean, baita ere politiko eta erakundeen artean; alde batetik, Udal barruan bertan, osoko bilkuran dauden aukera politikoen artean; beste alde batetik, dokumentuaren idazketa prozeduran zehar eskumena izan dezaketen Aldundi eta Eusko Jaurlaritzaren sail ezberdinetako teknikariek.

### **INPLIKATUTAKO ERAGILEAK – UDALERRIKO ERAGILEEN MAPA**

Parte hartzerako metodologia bezain garrantzitsu izan behar da prozeduran parte hartu behar duten eragileen hautaketa. Hala ere, pertsonen arteko interakzioan oinarritutako jarduketa bat da hau, non agian kontrakoak diren ikuspegiak elkarren aurrean jartzen diren. Guzti hori elkar-ulertze eta demokrazi parte-hartzaileko giro batean, era horretan guztientzat onargarri den konponbide batera heltzeko.

#### **Udalbatza**

Udalbatza prozeduraren etapa guztietan egote eta ezagutzaz izan behar den eragile bezala planteatzen da. HAPOn Jarrainen Batzorde bat eratuko da; berarekin batzartuko da erredaktore-taldea gutxienez hilean behin.

#### **Herritarren parte-hartze foroa (HPF)**

Herritarren parte-hartze foroa (aurrerantzean, HPF) kontutan hartu da eragile publiko bezala, nahiz eta uste den foro hau aldatu egingo dela prozedurako interakzio metodo bakoitzaren arabera. Azken finean planteatzen dena da Etxebarrin bizi diren guztiak hartzea HPF bezala.

Informazio eta enpoderatze maila zuzen baten Sukarrietako biztanleri guztiak parte har dezan bermatzeko ekintza ezberdinak asmatzen dira, aurrerako zehaztuko direnak. Esate baterako, uste da, prozeduraren une zehatzen batetan, HPF biztanleri osoa izango dela inkesta orokor bat antolatzen denean; horretarako, eta parte-hartzera denak berdintasunez heltzeko, tresna ezberdinak erabiliko dira, adibidez, webguneak, sare sozialak, buzoi fisikoak, informazio puntu bat..., saiatur ez inolako kolektiborik ez baztertzen tresna oso teknifikatuak, arreta ordutegi ez aproposak edo hizkuntza edo hitz egiteko era desegokia erabiltzeagatik.

#### **Kolektiboak eta taldeak**

Herritarren Parte-hartze Programa onartuta, zenbait lan garatuko dira Sukarrietako gizarte, ingurune fisikoko, arautzaile edo ekonomikoaren radiografi bat egiteko. Arreta berezia jarriko zaio detektatzeari, prozedura aurrera doan neurrian, prozedurari begirada ezberdin bat eman diezaioketen kolektibo edo taldeei (elkartek, hirugarren sektorea, kirol taldeak, jubilatuenak, etab.); beraientzako berebizi antolatutako lan saioetan egin daiteke hori.

#### **Emakumeak eta emakumeen elkarteak**

Nahiz eta logikoa den kolektibo hau emakumeen elkarten bitartez aurkeztea Etxebarrin, lan saio bereziak antolatzea planteatzen da, nahiz eta genero ikuspegia landuko den ere gai transversal bezala gainerako saioetan.

#### **Busturialdeko zerbitzuen mankomunazgoa**

Zenbait arlotan (berdintasuna eta gainerakoak) Busturialdeko Mankomunitateko ordezkariak, uste da eragile garrantzitsua izan behar dela aurreikusitako zenbait ekintza garatzerakoan.

#### **Erredaktore taldea**

HAPOn erredaktore taldea izango da baliabide eta prozedurak erraztuko dituen, denboran zehar parte hartuko duten eragile ezberdinen prestakuntza eta ondorengo enpoderatzearen bitartez.

---

## HERRITARREN PARTE-HARTZE PROGRAMA

SUKARRIETAKO HIRIA ANTOLATZEKO PLAN OROKORRA

Herritarrekin eraginkorrek diren komunikatzeko erak ezarriko dira, bi komunikatzeko era kontutan hartuz: reaktiboak eta proaktiboak. Reaktiboen kasuan, iradokizun-buzoi, informatikako foro, saio parte-hartzaileen bitartez espero da jasotzea, hiritarren lehendabiziko ekintza bat bilatzeko. Ordea, komunikazio eta parte-hartze proaktibo bat bilatzeko beharra dago ere, hau da, parte-hartzera hasiera batean bultzatuta ez dauden toki edo kolektiboen bilatzea, esate baterako, nerabeak, eta baita ere komunikazioa areagotzeko ahalegin bat egitea, adibidez, informazio puntu bat jarriz kalean bertan aditu eta komunikatzaile ona den pertsona batekin.



### **ERABILITAKO METODOLOGIA**

Prozedura aurrera eramateko metodoa Ikerketa-Ekintza parte-hartzaile, edo IEP, prozeduran oinarritzen da. Hau da “mota kualitatiboko azterketa eta jarduketa metodo bat, egoera kolektiboak hobetzeko emaitza fidagarri eta erabilgarriak lortzea nahi duena, ikerketa ikertu behar diren kolektibo beraien parte-hartzean oinarritzen duena. Era horretan, biztanleri taldeak edo kolektiboak ikerketa “objektu” izatetik ikerketaren “subjektu” protagonista izatera pasatzen dira” (Alberich, 2006).

Beste era batera esanda, prozedura osoan zehar hiritarrak enpoderatuko dira, era horretan, fase zehatzaren arabera, informazioa bildu ahal izateko, nahiak eta beharrak lokalizatu, eskaerak eta baldintzak finkatu, erabilzaile beraien diseinatu eta azkenik prozedura hiritar beraien bueltatu. Metodo honen oinarri diren printzipioak ondoko hauek dira:

#### **Prozedura “irekiak” eta prozedura “itxiak”**

Herritarren parte-hartze prozeduran zehar itxiagoak izango diren faseak izango ditugu, hau da, eragile zehatz batzuen presentzia izango dute (gehien bat, erredaktore taldea eta Sukarrietako udalbatza), izan ere, erredaktore taldea bakarrik egon daiteke. Horren adibide dira dokumentuen idazketa tekniko faseak. Beste fase batzuk, ordea, irekiagoak izango dira, adibidez, tailer irekiak, hitzaldi publikoak edota inkesta orokorrak egiten diren faseak.

#### **Prestakuntza eta enpoderatzearen arteko harremana**

Prestakuntza saioak saioa jasotzen duten kolektiboaren enpoderatzea lortzeko lan-saio bezala planteatzen dira, beraz hitzaldi didaktiko eta lantegi praktikoaren arteko nahasketa bat izango dira; batzuetan, prozedurak hiritarren parte-hartze propositiboa beharko du. Parte-hartze hori ezin da izan prestakuntzarik gabe, baina informazio hitzaldi formatuak, batzuetan, ez dira eraginkorrak, edo horretarako datozenen beharrak eta baldintzapenak identifikatu behar dira. Esate baterako, kolektibo batek (hirugarren sektorea, emakumeak, etab.) Planaren Aurrerakinean txosten edo jarrera motibatu bat eratu dezan prestakuntza saio bat egin beharko da, ez bakarrik bere partaideek informazioa jaso dezaten, baizik eta bere ikuspegitik hirigintzako plan bat ebaluatzeko ahalmena transmititzeko. Prestakuntza horrekin, herritarren parte-hartzea baliotsu bezala hartuko da, enpoderatua eta baloratua izan baita.

#### **Informazioa transmititzea**

Informazio ekintzen barruan informazio hitzaldiak ere planteatzen dira, hiritarrei ondorioak azaltzeko publiko zehatz horrentzat apropos den hizkuntza eta eran. Prestakuntza saioak ez bezala, ez da espero hitzaldi hauetan hiritarrek bueltan ezer ekartzea. Beraz, informazioa emateko era soil bezala planteatzen dira.

#### **Lan-tailerrak**

Tailerrak ondorioak ateratzeko edo iritsi ezberdinak maneiatzeko eta adostasun bat lortzeko ariketa praktiko bezala planteatzen dira, kasu hoberenean, edo gutxienez adostasun falta horien mota ezberdinei buruzko ondorioak ateratzeko. Diagnosi parte-hartzaileko tailer batzuk planteatu dira, hau da, parte hartzen duten hiritarren iritsi, beldur eta nahiak ateratzeko lan-saio bezala, eta planteatu dira ere eztabaidarako tailer batzuk, hiritarren eztabaida foro bezala planteatzen direnak gardentasun, publizitate eta berdintasun arauen barruan.

#### **Komunikazio eta diseinu grafikorako estrategia**

Hiritarrek komunikazioa landu nahi da, era horretan bere arreta lortzeko, aurreikusten diren parte-hartze ekintza ezberdinera joatea bultzatzeko, gauzak adierazterakoan argiak eta zehatzak izateko, etab.

## HERRITARREN PARTE-HARTZE PROGRAMA

SUKARRIETAKO HIRIA ANTOLATZEKO PLAN OROKORRA

### AURREIKUSITAKO EKINTZEN PLANIFIKAZIOA

PROPOSATUTA KO FASEA	EKINTZA	KODEA	KOMUNIKATZEA/INFORMATZEA	PARTE HARTZEA/HAUSNARTZEA	KONSULTATZETA/BAIDA	BUELTATZEA/KOMUNIKATZEA	OHARRAK
<b>1.Fasea</b> <b>PROGRAMA DE PARTICIPACION CIUDADANA</b>	Herritarren parte-hartze programa egitea	-					Erredaktore taldeak parte-hartze tresnen zabaltea, berrikustea edo egokitzea proposatuko du. Bere zehaztapena kontrastatuko da, behingoz, Udaltzarekin. Inplikaturako eragileen lehen zerrenda bat egingo da: elkarrekin, erreferentziako erakundeak, etab.
<b>2, 3 eta 4.Faseak</b> <b>AURREKO LANAK / ANALISIA</b>  Apropostzat jotzen da deskribatzen diren parte-hartze ekintzak HAPO idazten hasten den lehen unetik egitea.	Aurreko hitzaldia 1	Ht1					Hitzaldi bat antolatuko da erredaktore taldeak bere burua aurkez dezan eta azaldu udal mailaz gain dagoen plangintza, zer den HAPO bat, zein da Ingurumen Ebaluazio Estrategikoko prozedura eta plangintza genero ikuspegitik.
	Aurreko hitzaldia 2	Ht2					Udalerriaren egoera ikuspegi guztietatik zein den erakusten duen saio bat egingo da, ikusten diren gabeziak eta beharrak azalduz.
	Banakako elkarrizketak	BE					Banakako elkarrizketak udalerriko kolektibo-talde eta sentsibilitateen adierazgarri diren pertsonekin.
	Taldeko elkarrizketak	TE					Taldeko elkarrizketak udalerriko adierazgarri diren taldeekin.
	Inkesta orokorra 1	Ik1					Hiritarrei zuzendutako inkesta baliabide digital eta buzoi fisikoen bitartez, telefono bidezko gutxieneko muestreo bat eginez.
	Webgunea eta sare sozialak eratzea	WEB/SS					HAPO egiteko prozedurari buruz webgune bat eta sare sozialeko profilak eratu eta irekiak mantendu behin betiko onarpenera arte, beraiek eguneratuz prozedura osoan zehar.
	Esposizio panelak	EP					Herritarren parte-hartze proiektuaren faseei buruzko informazio-panelak.
	Gidatutako bisitak	GB					Herriko talde kualifikatuekin batera, eta hiritarrei irekiz, bisitak ingurune ezagutza transmititzeko: ondarea, ingurune naturala, poligonoak, hiri-bilbea, ur-ibilguak, etab.
	Prestakuntza saioa 1	PS1					Kolektibo-talde eta interesatutako hiritarrentzat prestakuntza saioa.
	1.Tailerra: Diagnosi parte-hartzailea	DT1					Hiritarrei zuzendutako udalerriko egoerari buruzko tailerra.
2.Tailerra: Diagnosi parte-hartzailea	DT2					Emakume eta emakume taldeei zuzendutako udalerriko egoerari buruzko tailerra.	
3.Tailerra: Diagnosi parte-hartzailea	DT3					Kolektibo eta interesatutako taldeei zuzendutako udalerriko egoerari buruzko tailerra.	

## HERRITARREN PARTE-HARTZE PROGRAMA

SUKARRIETAKO HIRIA ANTOLATZEKO PLAN OROKORRA

	4.Tailerra: Diagnosi parte- hartzailera	DT4				Udalerriko egoerari buruzko tailerra hezkuntza zentroetan.
	Sintesi-txostena	ST1				Fase honetako parte-hartze prozedurari buruzko txostena.
	Webgunean dagoen dokumentazioa eguneratu	WEB/ SS				SSk etengabe eguneratuko dira. Prozedura guztian zehar, egiten diren prestakuntza/informazio hitzaldiak webgunean jarriko dira hiritarrak informatu eta prestaturako eragileren prozedura jarraitu ahal dezaten.
<b>5.Fasea</b>  <b>AURRE- AURRERAKINA / HASIERAKO DOKUMENTUA PRESTATZEA</b>  Planteatutako ekintzak "AURREKO LANAK / ANALISIA" izendatutakoan planteatutako jarraipen bezala hartu behar dira.	Aurre-aurrerakin alternatiba proposamen zirriborroak	ZB				Oinarrien dokumentu bat eratu gutxienez alternatiben 5 proposamenekin aurreko sintesi txostenetik datozenak, aurre-aurrerakin faseko eztabaidaren oinarri izateko.
	Triptikoak buzoneatu 1	TB1				Bost proposamenekin triptikoak buzoneatu.
	Prestakuntza saioa 2	SF2				Bost proposamenen eredu ezberdinei buruzko saioa, kolektibo-talde eta interesatutako hiritarrei zuzendua.
	Inkesta orokorra 2	IK2				Hiritarrei zuzendutako inkesta baliabide digital eta buzoi fisikoen bitartez, telefono bidezko gutxieneko muestreo bat eginez.
	5.Tailerra: Alternatibak eztabaidatu	DT5				Koletibo-talde interesatuei zuzendutako tailerra.
	6.Tailerra: Alternatibak eztabaidatu	DT6				Hiritarrei zuzendutako tailerra.
	Ondorioei buruzko txostena eta ideia eta iradokizunen proposamenak	OPT1				Aurrerakina egiteko oinarritzko dokumentua.
	Webgunean dagoen dokumentazioa eguneratu	WEB/ SS				SSk etengabe eguneratuko dira. Prozedura guztian zehar, egiten diren prestakuntza/informazio hitzaldiak webgunean jarriko dira hiritarrak informatu eta prestaturako eragileren prozedura jarraitu ahal dezaten.
	Sintesi-txostena	ST2				Fase honetako parte-hartze prozedurari buruzko txostena.
<b>6.Fasea</b>  <b>AURRERAKINA</b> + <b>7.Fasea</b>  <b>JENDAUURREKO ERAKUSTALDIA ETA HAPORako IRIZPIDE ETA HELBURUAK FINKATZEA</b>	Informazio-puntu fisikoa eratzea – Hiritarrei banakako arreta zerbitzua.	IP / HA				Gune fisiko eta zentriko bat eratu jendaurrean erakusten den aurrerakina azaldu eta hiritarren iradokizunak jasotzeko ardura duen pertsona batekin. Gazteleraz eta euskarazko gaitasuna duen arkitekto edota lege-aholkulari bat izango du.
Prestakuntza saioa 3	PS3					Proposamenari buruz kolektibo-talde eta interesatutako hiritarrei zuzendutako prestakuntza saioa.
Inkesta orokorra 3	IK3					Hiritarrei zuzendutako inkesta baliabide digital eta buzoi fisikoen bitartez, telefono bidezko gutxieneko muestreo bat eginez.
Ondorioei buruzko txostena eta ideia eta iradokizunen proposamenak	OPT2					HAPO egiteko oinarritzko dokumentua.

## HERRITARREN PARTE-HARTZE PROGRAMA

SUKARRIETAKO HIRIA ANTOLATZEKO PLAN OROKORRA

	Webgunean dagoen dokumentazioa eguneratu	WEB/SS				SSk etengabe eguneratuko dira. Prozedura guztian zehar, egiten diren prestakuntza/informazio hitzaldiak webgunean jarriko dira hiritarrak informatu eta prestatua egoteko era horretan prozedura jarraitu ahal dezaten.
	Sintesi-txostena 3	ST3				Fase honetako parte-hartze prozedurari buruzko txostena.
<b>8.Fasea</b> <b>HAPOn</b> <b>HASIERAKO</b> <b>DOKUMENTUA</b> <b>+</b> <b>9 eta 10.Faseak</b> <b>JENDAURREKO</b> <b>ERAKUSTALDIA</b> <b>ETA PARTE-</b> <b>HARTZEAREN</b> <b>SINTESIA</b>	Prentsan argitaratzea 1	PA1				HAPOn zerikusia duten edukiak prentsan argitaratzeko elkarlana.
	Informazio hitzaldia 1	HI1				Informazio saioa. Bertara joango dira zuzendaria, lege-aholkularia eta Ingurumen Ebaluazio Estrategikoko arduraduna.
	Prestakuntza saioa 4	PS4				Kolektibo-talde eta interesatutako hiritarrei zuzendutako prestakuntza saioa.
	Informazio-puntu fisikoa eratzea – Hiritarrei banakako arreta zerbitzua.	IP / HA				Gune fisiko eta zentriko bat eratu jendaurrean erakusten den hasierako onarpeneko dokumentua azaldu eta hiritarren alegazioak jasotzeko ardura duen pertsona batekin. Gazteleraz eta euskarazko gaitasuna duen arkitekto edota lege-aholkulari bat izango du.
	Webgunean dagoen dokumentazioa eguneratu	WEB/SS				SSk etengabe eguneratuko dira. Prozedura guztian zehar, egiten diren prestakuntza/informazio hitzaldiak webgunean jarriko dira hiritarrak informatu eta prestatua egoteko era horretan prozedura jarraitu ahal dezaten.
	Prentsan argitaratzea 2	PA2				HAPOn zerikusia duten edukiak prentsan argitaratu ahal izateko laguntza.
	Sintesi-txostena 4	ST4				Fase honetako parte-hartze prozedurari buruzko txostena.
<b>11.Fasea</b> <b>HAPOn</b> <b>BEHIN-</b> <b>BEHINEKO</b> <b>DOKUMENTUA</b>	Informazio hitzaldia 2	HI2				HAPOn zerikusia duten edukiak prentsan argitaratzeko elkarlana.
	Webgunean dagoen dokumentazioa eguneratu	WEB/SS				SSk etengabe eguneratuko dira.
<b>12.Fasea</b> <b>HAPOn</b> <b>BEHIN</b> <b>BETIKO</b> <b>DOKUMENTUA</b>	Informazio hitzaldia 2	HI3				Prozedurari buruzko informazio-hitzaldia.
	Webgunean dagoen dokumentazioa eguneratu	WEB/SS				SSk etengabe eguneratuko dira.

## HERRITARREN PARTE-HARTZE PROGRAMA

SUKARRIETAKO HIRIA ANTOLATZEKO PLAN OROKORRA

### AURREIKUSITAKO EKINTZEN DESKRIBAPENA

#### Plan Orokorraren informaziorako ekintzak

##### *IH. Aldez aurreko informazio-hitzaldiak (2)*

Ekintzaren helburua	<p>Biztanleri orokorrean zuzendua, bere xedea da lanen izaera eta helburua ulergarriago egitea. Asmoa da Plan Orokorraren idazketa eta tramitazio prozedura auzokideei hurbiltzea era horretan uler eta bereganatu dezaten udalerrarentzat aproposen den hiri-eredua. Oso garrantzitsua da ere argi uztea hiritar eta inplikaturako eragileei norainokoa den parte-hartze hau eta zein izango den bere eragina, eta ez ematea itxaropen faltsuak eta ondorengo etsipenak (beste batzuen artean, udal gaineko afekzioak azalduko dira era HAPOri eragiten dizkieten baldintzapenak).</p> <p>Hiritarrak informazio simple, argi eta praktikoa baten bitartez benetan udal mailako hiria antolatzeko plan orokor batek ematen dituen aukera eta edukiri buruz prestatzea da, era horretan ondorengo lan-saioetan izan daitezkeen eztabaidetan ez diskutitzeko plan orokor baten elaboratze eta parte-hartze prozedura baten barruan kontutan hartu ezin daitezkeen gaiak buruz, bere izaera, xede eta edukien parte ez izateagatik. Horregatik erredaktore talde honek komenigarritzat jotzen du herritarren parte-hartze prozedura informazio-prestakuntza deituko dugun tarte batekin hastea.</p>
Kokapena	Bi hitzaldiak udalaren egoitzan egitea planteatzen da, bere ezaugarriak edota ordezkaritasuna direla eta.
Dedikazioa	Hiritarrei zuzendutako hitzaldi bi hauek lehen hilabeteetan egitea proposatzen da. Maila aproposa izango dute eta hitz egiteko era arrunt eta kolokiala erabiliko da, hitz teknikoak saihestuz.
1.Saioaren edukia	<p>Lehen zatia lurzorua antolaketaren maila arautzaile bikoitza (lurralde plangintza eta hirigintza) azaltzera zuzenduko da eta, hain zuzen, udalaz gaineko plangintzaren ikuspegitik Plan Orokorrak duen izaera arautzailea. Azalpenarekin batera zenbait adibide jarriko dira udalerrian mailakoak gaia adierazteko.</p> <p>Bigarren zatia Plan Orokorraren xede eta edukiri eta bere antolaketa xedapenei buruzkoa izango da, Ingurumen Ebaluazio Estrategikoaren papera eta funtzioa ere azalduz.</p> <p>Hirugarren zatia monografikoa izango da plangintzaren irizpide, helburu eta konponbide orokorren dokumentua egiteko izandako parte-hartze prozedurari buruz.</p>
2.Saioaren edukia	Pleguek dioten moduan, saio bat egingo da udalerriko gaur egungo egoera maila guztietan aurkeztuz, ikusten diren gabezi eta beharrak azalduz.
Gauzatze baldintzak	Hitzaldiak informaziorako diapositibak proiektatuz egingo dira.
Iraupena	50 minutuko hitzaldia eta ondoren galderetarako txanda bat.
Arduradunak	Hitzaldien emaileak arkitekto-zuzendaria, letratu aholkularia eta Ingurumen Ebaluazio Estrategikoaren tekniko arduraduna izango dira.
Hizkuntza	Euskara eta gaztelerazko elebitasuna bermatuko da azalpenean. Beharrezkoa balitz, hitzaldi bat euskaraz soilik eta beste bat gazteleraz soilik egin daitezke.
Tokia eta logistika	Udalak lokala utziko du. Proiektatuko diren material eta ponentziak erredaktore-taldeak prestatuko ditu. <p>Udalari helaraziko zaizkio panelak powerpoint edo pdf euskarri digitalean bere hedapenerako webgunearen bitartez edo digitalean proiektatzeko (pantaila, proiektoreak, etab.) apropostzat jotzen dituen lekuetan.</p>

## HERRITARREN PARTE-HARTZE PROGRAMA

SUKARRIETAKO HIRIA ANTOLATZEKO PLAN OROKORRA

### **DL. Dibulgazio liburuxka-triptikoa**

Ekintzaren helburua	Liburuxka-triptikoa biztanleari orokorrean zuzentzen da. Ekintza honekin egingo diren lanen xedea eta helburua ulergarriago egitea nahi da. Asmoa da Plan Orokorraren idazketa eta tramitazio prozedura auzokideei hurbiltzea era horretan uler eta bereganatu dezaten udalerrarentzat aproposen den hiri-eredua. Liburuxka-triptikoak hedatze eta informazio tresna izaten saiatuko da informazio hitzaldietan parte hartu ez duten edo ezin izan duten hiritarrentzat.
Arduradunak	Liburuxka-triptikoak Plana idaztearen ardura duen talde teknikoak egingo ditu.
Hizkuntza	Argitaratzea hizkuntza bietan izango da.
Logistika eta prestaketa	Erredaktore taldea konprometitzen dokumentazioa pdf formatuan helaraztera, era horretan bera zabaltzeko udal webgunean eta udaletik bidaliz e-maila bitartez. Erredaktore taldea konprometitzen da 100 liburuxka-triptiko inprimatu eta hedatzera hiritarren artean.

### **EP. Esposizio-panelak**

Ekintzaren helburua	Informazio-panelak biztanleari orokorrean zuzentzen dira. Ekintza honekin egingo diren lanen xedea eta helburua ulergarriago egitea nahi da. Asmoa da Plan Orokorraren idazketa eta tramitazio prozedura auzokideei hurbiltzea era horretan uler eta bereganatu dezaten udalerrarentzat aproposen den hiri-eredua. Informazio-panelak Udalak apropostzat jotzen dituen gune publikoetan ondoko ikuspegi buruz kontsultarako balioko dute: Plan Orokor baten prozedura edo idazte-faseak, bere funtzioa, nork idazten duen, beraien parte-hartzerako une nagusiak zeintzuk diren esatea, udalerrian goi-mailako plangintzak duen eragina, etab.
Gauzatze baldintzak	Erredaktore-taldea konprometitzen da azaldutako gai buruzko dibulgazio panel batzuk egitera. Udalaren lokaletan geratuko dira irisgarri.
Arduradunak	Dibulgazio-panelak Plana idaztearen ardura duen talde teknikoak egingo ditu.
Tokia eta logistika	Aurrekontuan panelen diseinu eta inprimaketa sartzen da. Beraiek eusteko eusgarri eta egiturak Udalak jarriko ditu. Udalari helaraziko zaizkio panelak powerpoint edo pdf euskarri digitalean bere hedapenerako udal webgunean.
Hizkuntza	Panelen hizkuntzak euskara eta gaztelera izango dira.

### **GB. Gidatutako bisitak**

Ekintzaren helburua	Ekintzak zenbati eremu edo gai buruzko bisita berezia egin nahi du, kualifikatutako udal taldeekin batera eta hiritarrei irekiak ingurunearen ezagutza transmititzeko: ondarea, ingurune naturala, poligonoak, hiri-bilbea, ibai-ibilguak, etab.
Arduradunak	Nolanahi, ikusiko da zeintzuk izango diren arlo bakoitzeko arduradunak. Edonola ere, erredaktore-taldeko arduradunen batek ere parte hartuko du.
Logistika eta prestatzea	Bisitak egiteko egun zehatzak jarriko dira. Hiritarrak etorri ahal izateko, asteburuetan egin daitezke.

## HERRITARREN PARTE-HARTZE PROGRAMA

SUKARRIETAKO HIRIA ANTOLATZEKO PLAN OROKORRA

### **WEB. Webgune espezifiko bat eratzea**

Ekintzaren helburua	Ekitaldiaren komunikabide eta hedatzeko medio bat zehazteko, apropostat jotzen da webgune bat egitea 2.0 teknologiarekin, hau da, sare sozialen eta eduki semantikoen integrazio dinamikora bideratua. Tresna hau irekita egongo litzateke herritarren parte-hartze prozedura osoan zehar, fase bakoitzean eguneratuz, eta aldi berean erredaktore-talderekin komunikazio zuzena lortzeko. Beti ere komunikazio era konbentzionalagoak ezartzeko kalterik gabe, hiritarrek egon daitekeen brexa teknologikoa gainditzeko ahal den neurrian.
Iraupena	Proposatutako dokumentu ezberdinak idazten diren bitartean
